

# Donostiko euskal indar-neurtzea

---

## EGINTZA

---

**E**USKAL-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur kontu ematera leku ontan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakua dan aurten izkribatzaileen indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duben sari emaldia.

Arreta aundiz ikusi ondoren aurkestu diran moldaera guziak batzarreak erabaki du era ontan:

Irabazi dituzte *sariak*:

Felipe Ayerbe, ta Emiliano Mujika ta Laskibar jaunak, «Neguaren gerriyan» ta «Mendizalea» izandatutako moldaera egokia gatik.

Irabazi dituzte *aldeerak*:

Urbano Agirre, Biktoriano Iraola, Pedro Migel Urruzuno ta Salegi, Jose Elizondo ta Kayetano S. Irure jaunak, «Kartzelan», «Aspaldicho pasia», «Euskal-erritik zerura», «Seaska maitagarriya» ta «Euskara gašua» izentzat dituzten lan apaña gatik.

*Aipamen onragarriak* irabazi di tuzte:

Juan Inazio Uranga, Jules Moulier eta Rosario Artola Elizechea jaun andreak «Marazuztak», «Bizi bedi euskera» ta «Ama Birjiñari» izendatua gatik.

Donostian 1913-<sup>ko</sup> Abendua-ren 21-<sup>an</sup>.

TORIBIO ALZAGA  
Goarpelaria.

MIGEL SALAVERRIA  
*Buru-ordekua.*